


Bizkaiko lan-egoera:
2022ko 1. hiruhilekoa



Bizkaiko lan-merkatuaren balantzea eskualdeka: 2022ko urtarriletik martxora

Langabezia %10 txikiagoa da orain dela urte bete Bizkaian zegoenaren aldean. Aldi berean, kontratazioa %16 hazi da 2021eko lehenengo hiruhilekoarekiko. Beraz, Bizkaiko lan-merkatua pandemiatik pixkanaka suspertzen ari dela erakusten dute datuek. Hala ere, azterlan honetan zehatzago ebaluatuko diren desberdintasun nabarmenak daude Bizkaiko eskualdeen artean.

Ikerketa hau “Bizkaiko Lanaren Demografiaren Mapa” izeneko online tresnan oinarritzen da (<http://euskara.bizkaiker.eus/>). Tresna horrek Bizkaiko lan-dinamikari buruzko datuak ematen ditu (lurralde mailan, eskualdeka edo udalerrika), langabeziari eta kontratazio berriei dagokienez. Plataforma hori DEMArekin lankidetzan garatu zen.


Aurkipen nabariak

- Eskualde guztietan **langabezia-mailek beheranzko joera dute** 2021eko datuekin alderatuta.
- Barnealdeko eskualdeetan — Arratia-Nerbioi edo Durangaldean, esaterako — **kontratazioa** moteldu da. Gainerako eskualdeetan, berriz, nabarmen igo da, batez ere Bilbo Handian.
- Oro har, **emakumeek, 44 urtetik gorakoek eta oinarrizko prestakuntza** dutenek langabezia-egoera gehiago jasaten dute, eta gainerako kolektiboek baino gizarteratzeko aukera gutxiago izaten dituzte.
- Kontratazioen artean, enpleguaren **behin-behinekotasuna** da nagusi, baina **kontratazio mugagabeak** nabarmen egin du gora eskualde guztietan.
- Desberdintasun nabarmena ikusten da **gizonen eta emakumeen kontratazio-sektoreetan**: lehenengoek oinarrizko lanbideak lortzen dituzte gehienbat, edo ofizialak/operadoreak dira manufakturretan; bigarrenek hezkuntzan/osasunean eta ostalaritzan kontzentratzen dira nabarmen.




Bizkaian 66.034 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 6), urtebete lehenago baino % 10 gutxiago. Aurreko urtearen aldean, **kontratazioa** nabarmen igo da: 2022ko urtarriletik martxora Bizkaiko 75.366 pertsona kontratatu dira (105.282 kontratu, 1,4 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 64.706 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 56 dira. Gainera, emakumeen langabezia igo da, gizonenarekiko.



Erdiak baino gehiagok >44 urte ditu, baina **gazteen langabezia** azkarrago hazi da (% 10).



10tik 6k oinarrizko hezkuntza dute, baina **erdiko hezkuntza** duten pertsonen langabezia gehiago hazi da.



Gehienek ez dute prestaziorik jasotzen eta urte bat baino gehiago daramate langabezian, baina <urte 1eko langabeziak gora egin du, prestaziorik gabe.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Pertsona kontratatuen artean, % **51 gizonezkoak** dira.



Kontratazioak gora egin du **adintarte guztietan**.




10 kontratutik 8 behin-behinekoak dira, baina urtarriletik-martxora % 74 hazi dira **kontratu mugagabeak**.




Zerbitzuetako eta salmentetako okupazioak emakumeengan, ofizialak eta operarioak gizonengan. Hezkuntza/osasuna, ostalaritza eta manufaktura sektoreak hazi egin dira.






Arratia-Nerbioin 896 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 3), urtebete lehenago baino % 10 gutxiago. Aurreko urtearen aldean, **kontratazioa** moteldu da: 2022ko urtarriletik martxora Arratia-Nerbioiko 1.091 pertsona kontratatu dira (1.391 kontratu, 1,3 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 1.203 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 55 dira. Gainera, emakumen langabezia gehiago igo da, gizonena jaisten ari denean.



Erdiak **>44** urte ditu. Gainera, haien artean langabezia igo da (+% 4).



10tik 6k oinarrizko hezkuntza dute, baina langabezia **erdiko hezkuntza** dutenen artean gehiago igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta **>1 urte** darama langabezian. **<1 urteko langabezia prestazioarekin** hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Kontratitutako 1.091 pertsonen artean 602 **gizonak** dira (% 55).



35-44 urteko pertsonak kontratatzen dira gehienbat.



Sinatutako kontratuen % 80 **behin-behinekoak** dira, baina **mugagabeak** % 25 dira martxoan.




Emakumeengan zerbitzu eta salmentetako okupazioak, oinarrizkoak gizonengan. Hezkuntza/osasun eta manufaktura sektoreak hazi egin dira.






Durangaldean 4.464 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 4 baino gehiago), urtebete lehenago baino % 10 gutxiago. Aurreko urtearen aldean **kontratazioa** moteldu da: 2022ko urtarriletik martxora Durangaldeko 8.293 pertsona kontratatu dira (11.595 kontratu, 1,4 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 8.497 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 58 dira. Gainera, emakumeen langabezia gehiago igo da, gizonenarekiko.



Erdiak **>44** urte ditu. Berriz, <25en langabezia igo da (+% 14).



10 langabetik 6k oinarrizko hezkuntza du, gainera haien artean langabezia gehiago igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta <1 urte darama langabezian. **<1 urteko langabezia prestazioarekin** hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Kontratutako 8.293 pertsonen artean 5.085 **gizonak** dira (% 60).



25-44 urteko pertsonak kontratatzen dira.



Sinatutako kontratuen % 90 **behin-behinekoak** dira, baina **mugagabeak** errekor mailan daude.




Emakumeengan zerbitzu eta salmentetako okupazioak, oinarrizkoak gizonengan. Hezkuntza/osasun sektoreak hazi dira eta, batez ere, manufakturak.






Enkarterrietan 1.997 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 6 baino gehiago), urtebete lehenago baino % 8 gutxiago. Aurreko hortaren aldean **kontratazioa** igo da: 2022ko urtarriletik martxora Enkarterrietako 1.420 pertsona kontratatu dira (2.134 kontratu, 1,5 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 1.386 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 57 dira. Gainera, emakumen langabezia gehiago igo da gizonenarekiko.



Erdiak **>44** urte ditu. Gainera, haien langabezia igo da (+% 3).



10tik 6k oinarrizko hezkuntza du, baina langabezia **erdiko hezkuntza** dutenen artean gehiago igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta >1 urte darama langabezian. **<1 urteko langabezia** hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila



Kontratutako 1.420 pertsonen artean 792 **emakumeak** dira (% 55).




35 - 44 urteko pertsonen kontratazioa igo da (+% 22).



Sinatutako kontratuen % 90 **behin-behinekoak** dira, baina **mugagabeak** bikoiztu dira.




Okupazioak zerbitzuetan eta salmentetan emakumeengan, ofizialak eta langileak gizonengan. Hezkuntza/osasun eta manufaktura sektoreak hazi egin dira.




Gernika-Bermeon 2.122 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 4), urtebete lehenago baino % 15 gutxiago. Aurreko hurtaren aldean **kontratazioa** igo da: 2022ko urtarriletik martxora Gernika-Bermeon 1.839 pertsona kontratatu dira (2.564 kontratu, 1,4 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 1.613 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 55 dira. Gainera, emakumeen langabezia gehiago igo da, gizonena jaisten ari denean.



Erdiak >44 urte ditu. **<25en** eta >44en langabezia asko hazi da.



10tik 6k **oinarrizko hezkuntza** du. Gainera hauen artean langabezia gehiago jaitsi da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta <1 urte darama langabezian. **Iraupen luzeko langabezia** hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Kontratutako 1.839 pertsonen artean 1.002 **emakumeak** dira (% 55).



>44 urtekoen kontratazioa jaisten da. **<44 urtekoena** igo da, berriz.




Sinatutako kontratuen % 84 **behin-behinekoak** dira, baina **mugagabeak** % 50 igo dira.




Emakumeengan zerbitzu eta salmentetako okupazioak, oinarrizkoak gizonengan. Hezkuntza/osasun eta merkataritza sektoreak hazi dira, eta, batez ere, ostalaritza.






Bilbo Handian 52.803 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 6 baino gehiago), urtebete lehenago baino % 10 gutxiago. Aurreko hortaren aldean **kontratazioa** asko igo da: 2022ko urtarrietik martxora Bilbo Handian 58.669 pertsona kontratatu dira (82.482 kontratu, 1,4 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 48.166 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 56 dira. Gainera, emakumen langabezia gehiago igo da.



Erdiak >44 urte ditu. <25en langabezia asko hazi da (+% 10).



10tik 6k **oinarrizko hezkuntza** dute. Gainera hauen artean langabezia gehiago igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta >1 **urte** darama langabezian. Aurreko ezaugarriko langabezia hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Kontratatuaren artean % 51 **emakumeak** dira.



Kontratazioak gora egin du adin-tarte guztietan, <25 urteko pertsonen artean motelago.




Sinatutako kontratuen % 80 **behin-behinekoak** dira, baina **mugagabeak** % 77 igo dira.




Okupazioak zerbitzu/salmentetan edo teknikoak emakumeengan, ofizialak eta langileak gizonengan. Hezkuntza/osasun eta manufaktura sektoreak hazi egin dira.






Markina-Ondarroan 1.029 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 4), urtebete lehenago baino % 5 gutxiago. Aurreko urtearen aldean **kontratazioa** jaitsi da: 2022ko urtarriletik martxora Markina-Ondarroan 1.299 pertsona kontratatu dira (1.568 kontratu, 1,5 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 1,357 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko **langabetuen** profila



Emakumeak % 52 dira. Gainera, emakumeen langabezia gehiago igo da (+% 8,5) gizonen aldean (+% 1,2).



Erdiak >44 urte ditu. <25en langabezia asko hazi da (+% 44).



10tik 6k oinarrizko hezkuntza du, baina langabezia **erdiko hezkuntza** dutenen artean gehiago igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta <1 urte darama langabezian. Aurreko ezaugarriko langabezia hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko **kontratutako** pertsonen eta kontratuen profila

Kontratutako 1.299 pertsonen artean 719 **gizonak** dira (% 55).



25 - 44 urteko pertsonen kontratazioa igo da.




Sinatutako kontratuen % 86 **behin-behinekoak** dira, baina mugagabeak % 33 igo dira.




Emakumeengan zerbitzu eta salmentetako okupazioak, oinarrizkoak gizonengan. Hezkuntza/osasun sektoreak hazi dira eta, batez ere, manufakturak.






Plentzia-Mungian 2.723 **langabe** daude 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean (100 biztanletik 4 baino gutxiago), urterete lehenago baino % 12 gutxiago. Aurreko hortaren aldean **kontratazioa** nahiko igo da: 2022ko urtarriletik martxora Plentzia-Mungian 2.755 pertsona kontratatu dira (3.548 kontratu, 1,3 pertsona bakoitzeko). 2021ean, tarte berean 2.484 izan ziren.

Langabeziaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



Kontratazioaren aldaketa 2021ko eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan



2022ko lehenengo hiruhileko langabetuen profila



Emakumeak % 54 dira. Gainera, emakume-langabezia igo da, gizonezkoena jaisten ari denean.



Erdiak 44 urte baino gehiago ditu, baina **langabezia <25en artean igo da** (+% 11).



10tik 4k oinarrizko hezkuntza du, baina langabezia **erdiko hezkuntza** dutenen artean igo da.



Gehiengoak ez du prestaziorik eta <1 urte darama langabezian. **Iraupen luzeko langabezia** hazi da.

2022ko lehenengo hiruhileko kontratatutako pertsonen eta kontratuen profila

Kontratutakoaren artean, % 51 **gizonak** dira.



Kontratazioak gora egin du adin-tarte guztietan, 25-44 urteko pertsonen artean izan ezik.



10 kontratutik 8 behin-behinekoak dira, baina **mugagabeak** % 70 igo dira.



Okupazioak zerbitzuetan/salmentetan, bai emakumeen, bai gizonen kasuan. Hezkuntza/osasuna, ostalaritza eta manufaktura sektoreak hazi egin dira.



Bizkaiko Lanaren Demografiaren Mapari buruz

Lanaren Demografiaren Mapak (LDM) **hileroko** informazio xehatua eta eguneratua eskaintzen du langabeen banaketari buruz, haien generoaren, adinaren, prestakuntzaren, langabeziaren iraupenaren eta jasotako prestazioen arabera, Bizkaiko 2.000 biztanletik gorako udalerrietarako eta eskualde bakoitzerako, baita lurralde osorako ere. Gainera, kontratatutako pertsonen eta sinatutako kontratuei buruzko informazioa ere eskaintzen du, sinatzaileen generoaren, adinaren, kontratu motaren, lanbidearen eta jarduera sektorearen arabera, Bizkaiko 2.000 biztanletik gorako udalerrietarako, eskualdeetarako eta lurralde osorako. Horrez gain, arestian aipatutako informazio guztiak denboran izandako bilakaera ere eskaintzen du.

Lanaren Demografiaren Mapan aurkeztutako datuen informazio iturria OpenData Euskadi plataforma da. Hau da, Bizkaiko Lanaren Demografiaren Mapan agertzen diren emaitzak administrazio baliabideak erabiltzen ditu, inkestetatik datorren informazioa erabili ordez. Informazio hori inkestetatik lortzen dena baino askoz fidagarriagoa eta zehatzagoa da. Lanaren Demografiaren Mapa hilero eguneratuko da, baina eguneratzearen egun zehatza datuen jatorria (OpenData Euskadi) eguneratzearen araberakoa izango da.

Web: www.iseak.eu

Twitter: [@iseak_eu](https://twitter.com/iseak_eu)

LinkedIn: [Fundación ISEAK](https://www.linkedin.com/company/fundacion-iseak)